

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN 2024KO UZTAILAREN 22KO BILERAREN AKTA.

2024ko uztailaren 22ko 16:30etan, Osasun Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzaren Torre gelan (Errekaide zumarkalea 39A, Bilbo), jarraian zehaztutakoak bildu dira, eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontseilu honen ondorioetarako, ulertzen da akta honetan jasotako erabakiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren egoitza nagusian hartu direla (Araba 45, Vitoria-Gasteiz), hura baita erakundearen egoitza.

Aurrekoa ezarri ondoren, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko presidentek deituta, honako kide hauek bildu dira: **Alberto Martínez Ruiz jauna**, Osasuneko sailburua eta presidentea; **Enrique Peiró Callizo jauna**, Osasuneko sailburuordea; **Miren Lorea Bilbao Artetxe andrea**, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea; **Hernando Lacalle jauna**, Eusko Jaurlaritzaren Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordea; eta **Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jauna**, Aurrekontuetako zuzendaria.

Kontseiluburuak quorum nahikoa dagoela egiaztatu du, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak –Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituenak– eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoaren arabera, eta, horrenbestez, **bertaratuek osoko bilkura eratu dute**, kontseiluburuak deitutako bilkura egiteko eta aldez aurretik bidalita zegoen gai-zerrendako puntuak eztabaidatzeko. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Estatutuen 8.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea **Susana López Altuna andrea** joan da (idazkari gisa).

GAI-ZERRENDAA

LEHENENGOA - 2024ko uztailaren 11ko bileraren akta irakurri eta onartzea, hala badagokio.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten pertsonak aho batez onartzen dute 2024ko uztailaren 11n egindako bileraren akta.

BIGARRENA - Administrazio Kontseiluaren osaera.

Lehenik eta behin, José Luis Quintas Díez jauna eta Nerea Urien Azpitarte andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluko kide izateari utzi behar diote.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluaren kideak partzialki aldatu dira. Kide guztiak bertan zeudenez, karguak onartu dira eta Ente Publikoaren Administrazio Kontseilua formalki eratu da, osaera honekin:

Kontseiluburua: Alberto Martínez Ruiz jauna, Osasuneko sailburua.

Lehenengo kidea eta kontseiluburuordea: Enrique Fernando Peiró Callizo jauna, Osasuneko sailburuordea.

Bigarren kidea: Miren Lorea Bilbao Artetxe andrea, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea.

Hirugarren kidea: Hernando Lacalle Edeso jauna, Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordea.

Laugarren kidea: Josu Iñaki Garay ibáñez de Elejaide jauna, Aurrekontuen zuzendaria.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

HIRUGARRENA - Osasuneko sailburuordea Administrazio Kontseiluko presidenteorde izendatzea.

Enrique Fernando Peiró Callizo jauna, Osasuneko sailburuordea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluko hirugarren kide izendatu behar da.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

LAUGARRENA - Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak dimisioa ematea eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia izendatzea.

Lehenengoa.- Onartzen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko zuzendari nagusia Maria Rosa Pérez Esquerdo andrearen dimisioa, eta izendatu zutenetik egindako lanagatik eskerrak eman zaizkio. 2024ko uztailaren 22tik aurrera izango ditu ondorioak, egun hori barne, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeak kalterik egin gabe.

Bigarrena.- Susana Lopez Altuna andrea izendatzen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko zuzendari nagusi. 2024ko uztailaren 23tik aurrera izango ditu ondorioak, hargatik eragotzi gabe Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

BOSGARRENA - Dibisioko zuzendariak dimisioa ematea eta izendatzea.

Maria Teresa Martínez Zabaleta andrea izendatu da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoko Asistentzia Sanitarioko zuzendari.

Xabier Ibarzabal Astigarraga jauna izendatu da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Ekonomia eta Finantzako zuzendari.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

SEIGARRENA - Administrazio Kontseiluko idazkaria izendatzea.

Maiteder Mielgo Rubio, Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea, izendatu da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluko idazkari.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute erabaki-proposamena.

ZAZPIGARRENA - Informazioa, eskaerak eta galderak.

Sailburuak Administrazio Kontseiluari jakinarazi dio instrukzio bat emango dela Osakidetzan plan berezi bat ezartzeko. Helburua izango da abuztuaren 1etik aurrera, abuztua eta iraila bitartean, EAGak, larrialdiak eta emergentziak ahalik eta gehien estaltzea.

Eztabaidagai gehiagorik egon ez denez, bilera amaitutzat eman da, 2024ko uztailaren 22ko 17:00etan.



Izpta.- Susana López Altuna
Idazkaria



Izpta.- Alberto Martínez Ruiz
Kontseiluburua
Osasun Sailburua
O.E.